# KOSTUEN EGITURA



Negozio guztiak bezala, gure errekreatibo sala aurrera eramateko, hainbat kostu izango ditugu. Gastu hauek, errekreatibo makinak, kontsolak eta teknologia mota desberdinetako hainbat tresna erostea gehitzen dute, gure zerbitzuak bezeroei eman ahal izateko. Gainera, makina hauek ez dira batere merkeak, baina azkenean gure negozioa arrakasta izateko eta jende asko joateko beharrezkoa da kontsola berriak erostea, hau da, jendea haien etxeetan ez dituztenak. Horrela gure errekreatibo salara etortzeko aukera gehiago izango dituzte. Honekin lotuta ere, makinaren bat arazo bat izaten badu, haien mantenimendua ordaindu egin beharko genuke eta hau beste kostu bat da. Gainera, makina guztien azterketa denbora zehatz bat pasatu ondoren egin behar da, horretarako teknikari batzuk alokatu egin behar dira. Beste alde batetik, errekreatibo sala on bat izan nahi badugu, joko berriak erosi behar ditugu, horrek beste gastu bat gehituko dio gure zerrendari. Jokuen kontura begiratuz, txinatar enpresa batekin akordio bat daukagu eta hauek kalitate oneko bideojoko merkeak salduko dizkigute gure bezeroei eskaintzeko. Gainera, antzinao jokoak baita ere saldu egingo dizkigute jendea bideojoko zaharrak gogoratzeko edotz umeak lehen bideojokoak nolakoak ziren ikusteko. Azkenik, beste kostu bat langileak dira. Bi langile alokatuta ditugu gure errekreatibo salan astean zehar eta 4 asteburuetan. Hau da asteko lehen bost egunetan gazteak ez direlako errekreatibo saletara joaten asteburuetan joaten diren denbora berdina zereginak dituztelako. Hau dela eta, astean zehar bakarrik arratsaldeetan zabaltzen dugu. Honezkero, asteburuetan jende potzentaia asko igotzen denez, diru kopuru gehiena lortzeko lau langileak lan egiten dute. Beraz, astean zehar dauden langileak hilabetero 600€ ko soldata izango dute eta asteburuetako langileak 660€-ko soldata izango dute lan gehiago egiten dutelako.

